

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2020 000002581

Espediente-zenbakia: 2020/IDA\_ERA\_0218

**Xedea**

**Bermeoko kirol taldeen** jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkureak, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Dirulaguntzen Oinarria espezifikoa onartzea erabagi zan. Oinarri espezifikoa horreen artean, Bermeoren izenaren zabalkundean eta herriko ekonomian eragin positiboa daukien jarduera arruntetik haratagoko jolas-izaerako kirol ekimenak antolatzeke dirulaguntzenak onartu ziran.

Bigarrena: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzeko.

Hirugarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Laugarrena: Horren ondorioz, 2020ko irailaren 25an, udal Osoko Bilkureak, zenbait Oinarri espezifikoa aldatzea onartu eban eta, euren artean, Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzenak.

**Argudioak**

Lehenengoa: Diru-Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Diru-laguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatezarena da, baina 2019ko ekainaren 21eko 2019/1.479 Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zan baina gaiak daukan premiatasuna kontutan edukita, egindako delagazinoa abokatu beharra dago alkateak zuzenean erotekeo.

**Sinadurea eta data**

**Erabakia**

Goian adierazitako kontuan hartuta, honakoa erabaki dot:

**LEHENENGOA:** Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen deialdia onartu eta zabaltzeko Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatuta ahalmena abokatzea alkateak zuzenean eroateko.

**BIGARRENA:** Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea, eta beharrezkoak diren eranskinak onartzea.

**HIRUGARRENA:** Deialdi honen publizitatea BDNS datu basera bideratzeko agindua emotea Ekonomia sailari.

**LAUGARRENA:** Bermeoko Udalaren webgunean deialdi honen publizitatea txertatzeko agindua emotea ATB sailari.

**KIROL JARDUERA ARRUNTEN 2020KO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA**

XEDEA	Bermeoko kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diruz laguntzea.
ESKATZAILEAK	Jarduera ekonomikoa garatzen edota garatzen ez duten pertsona juridikoak, helbide soziala eta bere ohiko kirol jarduera Bermeon garatu behar dute.
DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA MOTA	12.000 €  Dirulaguntza ebatzi ondoren %100a ordainduko da. Eskaria eta justifikazioa aldi berean egiten dira. Aurton Covid 19ak sortu deuskun egoeragaitik ekintza asko ezin izango dira burutu. Bestalde, aurrekontuaren sarreretan ere, murrizketa izan dogu. Hau dala eta, berariazko oinarriertan aurreikusita egon dan zenbatekoa murriztu beharra egon da, eta nahiz eta eskarien guztizkoa zenbatekora ez heldu, hau ez da bananduko bere osotasunean.



EMONGO DAN GEHIENGO KOPURUA	5.000 €
ESKARIA eta JUSTIFIKAZIOA EGITEKO EPEA	Deialdia zabaltzen danetik 10 egun naturalera
AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	Eskaera egiteko: - Dirulaguntza eskaera - Aurrekontua Justifikazioa egiteko: - Dirulaguntza zuritzea - Diru sarrerak eta gastuak - Txostena edo memoria - Fitxen laburpena - Jarduera paralekoak, herri ekimenak.
HELBURUAK BALORAZIO IRIZPIDEAK PROZEDURA	Honeen informazioa 2020ko uztailaren 8an BAOn publikatutako Jarduera arrunta finantzatzeko dirulaguntzen deialdiaren berariazko oinarrietan eta 2020ko urriaren 26an BAOn publikatutako izenburu bereko zuzenketetan.
TRAMITAZIOA INSTRUKTOREA BALORAZIO BATZORDEA	Kirol Patronatuko zuzendaria Kirol Patronatuko diru-laguntzen balorazio batzordea Erabakia: Kirol Patronatuko batza artezkaria

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E40005341200Z2X4B0M514P7

**Sinadurea eta data**

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 04/11/2020  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 04/11/2020  
 09:29:35

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_ERA\_0218

Data: 30/10/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

